

## ETAren agiria Euskal Herriari

«ETA, nazio askapenerako euskal erakunde sozialista iraultzaileak, lehenik eta behin Gazako herritarrak jasaten ari diren egoera larria eta sionistak Palestinako herriarekin amaitzeko burutzen ari diren sarraskia eta berau posible egiten duen nazioarteko agintarien kolaborazioa irmoki salatu nahi du. Herri palestinarrentzat gure adorea eta elkartasun iraultzailea. Gora Palestina Askatuta!

Era berean ETak, azken hilabeteetan buruturiko ekintzok bere gain hartu eta honakoa adierazi nahi dio Euskal Herriari:

- Azaroaren 20an, Bilbon, Arnotegi mendian kokaturik dagoen errepikagailuaren aurka lehergailuz buruturiko ekintza, kalte materialak eraginez.

- Abenduaren 3an, Azpeitian, Altuna Y Uria, Asfaltos Urretxu eta Hormigones Ekarri entresetako buru zen Ignacio Uria Mendizabalen exekuzioa. Euskal Herriari inposatutako Abiadura Handiko Trenaren lanetan bereganatutako erantzukizunagatik eta ETAren zerga iraultzailea ordaintzeari uko egiteagatik.

- Abenduaren 31an, Bilbon, EITB, Antena 3, Expansión, El Mundo, eta Onda Cero komunikabideek dituzten egoitzen aurka lehergailuz zamatutako auto bidez buruturiko ekintza, kalte materialak eraginez.

Antena 3, Expansión, El Mundo, eta Onda Cero espainiar faxismoaren mesedetan lan egiten duten sasi komunikabideak dira. Euskal Herriak bizi duen errepresio egoera bultzatu eta gure herriak bizi dituen erasoak zilegitzeko tresnak diren heinean, gure ekintzaren helburu izan ziren eta aurrerantzean izango dira ere. Unean uneko barne ministroaren sokatik independentismoaren aurkako errepresioaren xaxatzaile lana egoki betetzeko ardura hartzen dute. Baina errepresio estrategian ardurak hartzeak, herri honen aurrean, eta ETAren aurrean, erantzukizunak hartzea dakar ere. EITBren instalazioak ere ekintzaren helburu ziren. Sabin Etxearen aginduz EITBk Euskal Herriak bizi duen gatazka desitxuratzen hartu duen ardurarekiko erantzuna izan da ekintza. Herritarron diruz ordaindutako irrati telebista publikoa Sabin Etxetik ezarritako zuzendari, erredaktoreburu eta komisario politikoen bitartez Euskal Herriak jasaten duen zapalkuntza estali eta gatazka politikoa desitxuratzeko tresnan bilakatu dute. Espainiako aginduei men eginez ezker abertzaleak jasaten duen ilegalizazio eta apartheid politiko mediatikoa de facto bete arazten dute. Herri mugimenduarentzat, independentismoarentzat eta disidentziarentzat ez dago telebista publikorik, ez irrati publikorik... EITBn, ETA eta bere militanteak egunero 'terrorista' izendatzen diren bitartean, tortura latzaren bidez polizia eta guardia zibilaren kasernetan euskal militanteei bortxaren bidez egin arazitako deklarazioak informazio iturri zilegitzat hartzen dira. Aurretik Ertzaintzarekin egin zuten bezala, Sabin Etxeko teknokratek ezker abertzalea mediatikoki jipoitzeko tresnan bilakatu dute EITB.

Kontseilaritza autonomikoak EITBko erredakzioetan duen eragina zuzena eta boteretsua da. Hortaz kazetaritza estrategia errepresiboaren zerbitzura jartzeko joera sakontzen ari da. Inori ez diogu guk bere kazetari lana nola burutu behar duen esango. Baina argi ohartu nahi dugu kazetari lanaren babespean inork errepresio estrategian erantzukizunak bereganatzen baditu

edo gure Erakundearen, presoan edota herritarren aurkako eraso, irain eta toxikazio lan iraunkorra burutzea ez dugula zilegitzat joko. Horren aurrean, ETAK, kazetaritza zeregin polizialen menpera jartzen duten jokabideak salatzen jarraituko du. EITBko arduradunei dei argia egiten diegu. Joka dezatela erantzukizunez. Utz diezaiotela EITB gatazka desitxuratzeko eta independentismoa erasotzeko beste arma batean bilakatzeari.

Komunikabide ofizialek eta politikari profesionalek adierazpen askatasunaren aurkako ekintzatzat jo dute Abenduaren 31koa. Herri komunikabideak itxi, kazetariak kartzelaratu edota independentistak, esandakoengatik espetxera daramatzatenean, mutu geratzen diren berdinek. Euskal Herriak ez du Adierazpen Askatasunik ezagutzen. Herri honen parte batek egunero esaten duenagatik, kartzelaratua ez denean, zentsuratua edo zokoratua da. Hori da herri honetan 'adierazpen askatasunaren' eguneroko argazkia: batzuei nahi hainekoa eta besteei epaile aurrera eramaten dituen. Kodigo penal berrituek, boterearen zentsurek eta espetxe mehatxuek zedarritzen dute herri honetako 'adierazpen askatasuna'. Horixe, irratiak eta egunkariak ixtea posible egiten duen hori bera, guardia zibilak eta barne ministerioak ezarritako irizpide barneko 'adierazpen askatasuna', frankorena modukoa!

Ignacio Uria Mendizabalen aurkako ekintzaz:

Ignacio Uriaren aurkako exekuzioa ETAK AHTren aurka daraman kanpaina armatuan kokaturik dago. Ignacio Uria Mendizabalek, bere bi anaiekin batera, zuzentzen zituen entpresak AHTren lanetan dihardute. Euskadi Ta Askatasunak aurretik esana du inposatutako proiektu txikitzaile horretan erantzukizunak dituzten arduradunak ETAREN helburu direla.

Ekintzaren abagunean, herritarrak nahastu asmoz, ETAK bere proiektu politikoa armez inposatu nahi duela esaten aritu dira beste behin ere politikari profesionalak. Ederki dakite ordea ETAK Euskal Herriaren nazio eskubideen alde egiten duela borroka, hauek onartuak izan daitezten.

Ordea nork, nori eta zer inposatzen zaio Euskal Herriari? Abiadura Handiko Trena, turistifikazioa, Bardeetako tiro gunea, Pasaiako superportua, Itoizko urtegia, Boroa, Petronorren planta... den denak euskal herritarren interesen bizkarretara burutu izan dira edo burutu nahi dira.

Euskal Herriaren azpiegitura eta lurralde antolaketa, luxuzko bulegoetako epelean, enpresari-buru batzuen eta beraien murrontzan ari diren beste hainbeste politikarien artean erabakitzen da. Inork aukeratu ez dituen enpresari eta gestoreen esku dago herri honen garapena. PNV eta UPNK beren Marbella erraldoi propioa eraiki nahi dute haien esku dauden Diputazio eta Gobernuen eskutik.

Horratx herri honen errealitatea: elite politiko eta enpresarialaren diruzaletasunaren esku dago Euskal Herriaren etorkizuna. Estatuaren zapalkuntzarekin nahikoa ez eta herri honi etxe barrutik iristen zaio eguneroko inposaketa. Inposaketa horren arduradunetako bat zen Ignacio Uria Mendizabal. Espainiako zergak ordaintzen zituen bitartean, Espainiaren onurako eta Euskal Herriari inposatutako AHTren lanetan aberasten zen bitartean, Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokari laguntza emateari uko egiten zion.

Zentzu honetan, oharpen argi bana luzatu nahi diegu Abiadura Handiko Trenaren proiektuaren lanetan diharduten edota zer ikusi duten ingeniari,

goi-mailako tekniko, arduradun eta entepresetako nagusi guztiei proiektu horren lanak bertan behera utz ditzaten eta herri eragileak eskatzen ari diren eztabaida publikoa eman dadin.

Gaurgero eztabaida publikorik gabe eta dekretu bidez makro proiektu hori eta desmasiako txikizioa abian den artean AHTren lanetan jarraituko duten aipatu arduradunak, eta beren ondasunak, ETAREN helburu izango dira.

Abiadura Handiko Trena gelditu beharra dago. Proiektu hori herri desegituraketan beste urrats bat da. Herri ogasuneko dirua lapurtzeko aitzakia. Altxa dezatela proiektu horren eztabaidaren gainean ezarri den zentsura. Ireki dadila jendarte eztabaida. Inon ez da ageri proiektu horren beharra eta hori da ezkutatu nahi dena: proiektua gutxi batzuen artean eta gutxi batzuentzat pentsatua izan dela.

AHTren aurkako herri oposaketa ezkututzen da, herri mobilizazioak isiltzen dira, herritarren eta adituen iritziak zentsuratzen ari dira. Borroka horretan dabilzan batzuei komunikabideetan agertzeko betoa ETAREN ekintza gaitzesteko altxa zaie soilik. Etengabe zentsuratuak direnek ETAREN aurka azaltzeko kamara eta mikrofono guztiak topatu dituzte. Errazki erori dira batzuk agintarien jukutria horretan.

Orobat Euskal Herriko populazioari dei egiten diogu indar guztiz Abiadura Handiko Trenaren aurka altxa dadin. Euskal Herria ezker eskuin zulatu nahi duen tren txikitzaile hori mobilizazioek eta herri presioak soilik gera dezakete. Bozkak txeke zuriak direlakoan herri hau elite baten interesen arabera kudeatu daitekeela uste duten horiek kalkulu tronpatuak burutu dituzte: Borroka honetan joan-itzulizko bidai txartelik ez dago. Ez dira pasako!»

Euskal Herrian, 2009ko urtarrilean